

**OGASUN BATZORDEAREN  
DIKTAMENA**

**2014-12-11**



Esp. kodea: 2013DPRE0001

Gaia: 2014 urteko Udal Aurrekontua  
Hasiera eguna: 2013/12/16

**OGASUN BATZORDEA**  
**2014-12-11**

## **2015. URTEALDIKO AURREKONTUAK ONARTZEKO PROPOSATZEA.**

Alkateak 2015eko aurrekontuen proiektua aurkeztu du, aztertu eta eztabaidatzeko. Agiri horrek oinarria du udal sailtakoek egindako eskaeretan, eta Ogasun Batzordera bidali dute, izapidetzeko.

**2014ko ekitaldiko aurrekontu orokorren proiektuak**, udalbatzarrak onartu dezan jarri dena, **HOGETA HAMALAU MILIOI BEDERATZIEHUN ETA BERROGEITA BOST MILA ETA SEI EHUN ETA HIRU EURO ETA HIRUROGEITA HAMAZORTZI ZENTIMO (34.945.603,78€)** egiten du, eta aurrekontu horretan sartuta daude Udalaren beraren aurrekontua, **HOGETA HAMAIIKA MILIOI ETA BOSTEHUN ETA HOGETA BOST MILA ETA BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAZORTZI EURO ETA LAUROGEI ZENTIMO**ekin (31.525.278,80€) eta Iturbide Egoitza erakunde autonomoaren aurrekontua, hurrenez hurren, **HIRU MILIOI ETA BOSTEHUN ETA HOGETA HAMAZAZPI MILA ETA BERROGEITA LAU EURO ETA HIRUROGEITA HAMAIIKA ZENTIMO**ekin (3.537.044,71€)

Alkatetza udal gobernuan sartuta ez dauden udal talde politikoeekin aurrekontuari buruz izandako negoziazio prozesuan EAJ-PNV eta PSE-EE taldeen ordezkariak adierazi dute bere kontrako iritzia, jarrera hori zenbait kontusail eta ekimenekin ados ez daudelako. Hori dela eta, Ogasun Batzordean proiektuari osoko emendakina aurkezten dute.

Osoko emendakina bozkatuta, ez da onartu Batzordeburuaren Lehendakariaren kalitatezko botoarekin, bi bider boto berdinketa eman delako, EAJ-PNV eta PSE-EE udal taldeko ordezkariak alde eta BILDU eta ARALAR udal taldeko ordezkariak kontra bozkatu baitute.

Osoko emendakina onartu ez denez, aurrekontu proiektua bozkatu da, aurrekontuko kontusailak eta exekuzio arauak barne. Proiektuari dagokionez, Ogasun Batzordeak, Batzordeburuaren Lehendakariaren kalitatezko botoarekin, bozketan bi berdinketa izan eta gero, BILDU eta ARALAR udal taldeko ordezkarien aldeko botuekin eta EAJ-PNV eta PSE-EE udal taldeko ordezkarien kontrako botoekin, proiektuari aldeko txostena aurkezten dio Udalbatzarrari eta proposatzen dio akordio hau hartzea:

1.- Hasiera batean onartzea 2015eko ekitaldiko aurrekontu orokorra. Barne hartzen ditu Udalaren beraren aurrekontua eta ITURBIDE EGOITZA erakunde autonomoaren aurrekontua, aurrekontu bakoitza betetzeko arauekin batera, eta Udalaren beraren aurrekontuaren konpromiso kredituen eranskina ere bai.

2.- Espedientea jende aurrean erakustea, interesdunek aztertu eta bidezkotzat jotako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten, 15 egun balioduneko epean jende aurrean erakusteko iragarkia argitaratzen dutenetik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

3.- Espedientea behin betiko onartzea, jende aurrean erakusteko aldi horretan aurrekontuaren aurkako erreklamaziorik jaso ezean.



---

**Esp. kodea:** 2013DPRE0001

**Gaia:** 2014 urteko Udal Aurrekontua  
**Hasiera eguna:** 2013/12/16

---

Arrasate, 2014ko abenduaren 11a

BATZORDEBURUA